

# ERRAMUN INTZAGARAI

(Donostia 1878 azaroa'ren 21'an)

---

## EZIN UKATU



Intzagarai apaiz jauna, euskaltzaña, nuan nik adiskide mamia, geren arteko urteen joanagatik. Beste bidez, bera nere aldezlari prestua. Ederki artzen genuan bata-besteak, biak-ala-biak. Onginaia alkarri truk. Ez zitzaizun ots aundiko gizona, isila ta leiala baizik. Irakurle jakin-nai purrukatua. ¡Zenbatetan ez gera kide aritu liburu tartean! «Eusko Ikaskuntza»-n ere bai. Aterako zizun sakelatik idatz-liburuñoa ta ariko zitzaizun tarteka ari ta ari. «*Don Ramón*, lan gogorren bat egiteko zaude». Ezta antzik eman ere.

Agidanean elizatik etorriko zitzaizun euskerazko sermoia eginda. Intzagarai apaiz jauna euskaltzale bikaña izaki. Bikaña ta burutsua. Edo-ta, burutsua ta bikaña. Atzerritarra ala bertakoa, zana-zala, euskeraz ikastera *Don Ramón*-engana bidaltzen genuan. Makiñabat ikasle onela ibilii. Erriko «Círculo Integrista»-tik, euskeraz ikasi naiez, atoz, ta joan zan. ¿Orduzkoa ote Etxaide jaunaren euskalduntzea?

Donostia-ko euskerazko asteroko argiari bizitza eman ta ttaka-ttaka ibiltzen erakutsi genionean, antxen zan gurekin batean Intzagarai jauna. Eta gerta oi dan bezela, ize-nordez idazten danean orde-izenez idazlariari deitzea, orduztik *Don Ramón* bearrean *Elurmendi* aipatu. Ta *Elurmendi* zan erriko barren-barrengo txokoak eraskuten ziz-

kiguna, donostiarren izkera jatorrean, leioetan zintzilik ikusten diran kolaio puska legorrak aztu gabe.

Don Ramón Intzagarai donostiarra... ¡ai bera nolako! Erritarren artean beti izan oi dira errizale ospetsuak. Ordea, Intzagarai jaunaren donostiartasuna ezin geiagokoa. Geroni makalak ez geralarik, alkarrekin neurtzekotan txautuko ginduzke. Muñetarañoko donostiarra genuan. Erri- edestian maiz egiten zuan murgil, erria ezagutuago ta maiteago, alegia. Inon ez bere erria bezelakoa. Etxe-sarreran, noski, *Ciudad de San Sebastián* izenadun irudigarria Orra erriari txapela maiz kentzeko aukera. Izen aren betetzen zuan *Elurmendi*, arako arri zaarrak sutauts-usaia oraindik joangabeak. Ni *Donostia* eleberria idazten ari nintzala ¡zenbatetan ez zait ottu gure *Elurmendi*! ¡Ai, egiten nion nere buruari —banekizki arek zekizkian Donostia-ko maikiñabat gertaera txiki barru-barrukoak!, ura bizi izan baidan nere aurreragoko urteetan Donostia donostiagoa zanean. «Zuk bear zenuke *Donostia* idatzi», bein esan nion.

Baño gajoa il zanean azaldu zan zein lan «gogorra» zerabilkian eskutartean. Ura zan, ainbeste lan eman zizkion egitekoa: *Historia Eclesiástica de San Sebastián*. Ori eginda joan zan bizidunen tartetik. Goian bego ta an egongo da, sekulako, noski. Intzagarai jaunaren oroimenezko lerro batzuk eskatu zizkidatenean, ezin ba, ezin ukatu.

ANABITARTE'TAR AUGUSTIN

